



OSOKO BILKURA
2018/11/29
10 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

**NIK, IÑAKI GALDOS LANDAK,
ELGOIBARKO UDALEKO BEHIN-
BEHINEKO IDAZKARI NAIZENEZ,
honako hau**

**D. IÑAKI GALDOS LANDA EL
SECRETARIO ACCTAL. DEL
ILUSTRE AYUNTAMIENTO DE
ELGOIBAR.**-----

ZIURTATZEN DUT:

Bi mila eta hemezortziko azaroaren hogeita bederatzian, Udalbatzarraren Osoko Bilkurak egin zuen bilerako aktaren zirriborroa honako hau dela:

Elgoibarren eta bertako Udaletxean, bi mila eta hemezortziko azaroaren hogeita bederatzian, arratsaldeko seiak eta hogeita hamar minutu direnean, Udalbatzarraren Osoko Bilkura lehenengo deialdian bildu da, ohiko bilera egiteko, Ane Beitia Arriola Alkate-lehendakariaren gidaritzapean, eta honako zinegotzi hauek bertan direla: Eusko Alderdi Jeltzalea Udal-taldearen buru den Ane Beitia Arriola andrea, Iosu Arraiz Aramburu jauna, Gorka Garaizabal Agirregomezkorta jauna, Bittori Zabala Fernandez andrea, Andrea Arriola Ferrer andrea, Blanca Larrañaga Iriondo andrea, Ioseba Arrizabalaga Mendikute jauna eta Unai Arizmendiarieta Garcia jauna. Elgoibarko EH BILDU Udal-taldearen izenean, Jose Luis Ibarzabal Eguibar jauna, Mireia Isasmendi Aizpiri Andrea, Miren Arrate Arrieta Jauregi andrea, Joseba Osoro Iturbe jauna eta Jon Peli Uriguen Ansola jauna.

Ez dira bertaratu; Eusko Alderdi Jeltzalea Udal-taldearen izenean: Maialen Gurrutxaga Uranga andrea. Elgoibarko EH BILDU Udal-taldearen izenean: Iñaki Larrañaga Etxabe jauna. Euskal Sozialistak Udal-taldearen izenean, Nerea Alustiza Alonso andrea eta Fernando Suarez Varela jauna.

CERTIFICO:

Que el borrador del acta de la sesión celebrada por el Pleno Municipal el día veintinueve de noviembre dos mil dieciocho, es del tenor literal siguiente:

En la Villa de Elgoibar y su Casa Consistorial, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del veintinueve de noviembre de dos mil dieciocho, reúnen en primera convocatoria el Ayuntamiento Pleno para celebrar sesión ordinaria, bajo la Presidencia de la Sra. Alcaldesa-Presidenta Doña Ane Beitia Arriola y a la que asisten los Corporativos: Por el Grupo Municipal del Partido Nacionalista Vasco, del que forma parte la Sra. Alcaldesa: Don Iosu Arraiz Aramburu, Don Gorka Garaizabal Agirregomezkorta, Doña Bittori Zabala Fernandez, Doña Andrea Arriola Ferrer, Doña Blanca Larrañaga Iriondo, Don Ioseba Arrizabalaga Mendikute y Don Unai Arizmendiarieta García. Por el Grupo Municipal de EH BILDU Elgoibar: Don Jose Luis Ibarzabal Eguibar, Doña Mireia Isasmendi Aizpiri, Doña Miren Arrate Arrieta Jáuregui, Don Joseba Osoro Iturbe y Don Jon Peli Uriguen Ansola.

No asisten; Por el Grupo Municipal del Partido Nacionalista Vasco: Doña Maialen Gurrutxaga Uranga. Por el Grupo Municipal de EH BILDU Elgoibar: Don Iñaki Larrañaga Etxabe. Por el Grupo Municipal PSE-EE: Doña Nerea Alustiza Alonso y Don Fernando Suárez Varela.



OSOKO BILKURA
2018/11/29
10 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

Iñaki Galdos Landa Jaunak, behin-behineko idazkariak, bileraren fede eman du.

Da fe del acto el Secretario acctal. Don Iñaki Galdos Landa.

LEHENENGOA.- 2018KO URRIAREN 25EAN EGINDAKO BILERARI DAGOKION AKTA ONARTZEA.-

PRIMERO.- APROBACIÓN DEL ACTA CORRESPONDIENTE A LA SESIÓN CELEBRADA EL DÍA 25 DE OCTUBRE DE 2018.-

Bozketan egin ondoren, aho batez onartu da bi mila eta hemezortziko urriaren hogeita bostean egin zen bilerari dagokion akta.

Sometida a votación el acta correspondiente a la sesión celebrada el día veinticinco de octubre de dos mil dieciocho, la misma es aprobada por unanimidad.

BIGARRENA.- ENPLEGUA ETA TOKIKO GARAPENA SUSTATZEKO PROIEKTUAK, HOTS, LANBIDE - EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAK DIRUZ LAGUNTZEN DITUENAK GAUZATZEKO ELGOIBARKO, SORALUZEKO, MENDAROKO, DEBA ETA MUTRIKUKO UDALEN ARTEAN BURUTZEN DEN KUDEAKETA DEBABARRENEKO LURRALDE EREMUAREN ESKU UZTEKO HITZARMENA ONARTZEA.-2018.-

SEGUNDO.- APROBACIÓN DEL CONVENIO DE ENCOMIENDA DE GESTION ENTRE LOS AYUNTAMIENTOS DE ELGOIBAR, SORALUZE, MENDARO, DEBA Y MUTRIKU, PARA LA EJECUCIÓN DE LOS PROYECTOS DE IMPULSO DEL EMPLEO Y DESARROLLO LOCAL SUBVENCIONADOS POR LANBIDE-SERVICIO VASCO DE EMPLEO, AL ÁMBITO TERRITORIAL DE DEBABARRENA.- 2018.-

Aho batez onartu eta erabaki bihurtu da Udal Kudeaketarako Batzordeak eman duen honako irizpen hau:

Es aprobado por unanimidad elevándolo a la categoría de acuerdo el siguiente dictamen de la Comisión de Gestión Municipal:

2018ko ekainaren 20an, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuaren Zuzendari Nagusiak 2018ko ekainaren 13an eman zuen Ebazpena argitaratu zen. Ebazpen haren bitartez argitaratu egin zen enplegua sustatzen duten tokiko ekintzak abian jartzeko 2018rako diru-laguntzei buruzko deialdia.

Resultando que con fecha de 20 de junio de 2018 se publicó en el Boletín Oficial del País Vasco la Resolución de 13 de junio de 2018 del Director General de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, por la que se procede a la publicación de la convocatoria de ayudas para acciones locales de promoción de empleo para el ejercicio 2018.

2018ko ekainaren 13an eman zen ebazpen haren II. ERANSKINEAN, bestalde, 1., 2. eta 3. motako ekintzak bideratzeko lurralde esparruei dagokion laguntzen aurrekontuaren banaketa ezartzen da.

Que en dicha resolución de 13 de junio de 2018, en su ANEXO II, se establecen los presupuestos por ámbitos territoriales para el desarrollo de actuaciones de los Tipos 1, 2 y 3.



OSOKO BILKURA
2018/11/29
10 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

Era berean, ebazpen hartan Eskualdeko Enplegu Plan bakoitzaren baitan zedarritutako lurralde eremu bakoitzarentzako laguntzen gehienezko zenbatekoak finkatu ziren; eta horretaz gain, ezarri zen Debabarrena lurralde eremua osatzen zuten Udalak Deba, Mutriku, Mendaro, Elgoibar, Eibar eta Soralue - Placencia de las Armas zirela. (1. ERANSKINA)

Halaber, kontuan izan behar da, ebazpenaren II. ERANSKINEAN eskualde bakoitzari gehienez ere eman dakioken diru-laguntzaren gehienezko aurrekontuak ezartzen direla, eta Debabarrena eskualdeari dagokionez, zenbateko horiek ondorengoak direla: 361.113,10 € eskualde osoarentzat 1. eta 2. motako jarduerak egiteko; 99.594,53 € Eibarrentzat 3. motako jarduerak egiteko, eta azkenik, 16.308,20 € Soralue - Placencia de las Armasentzat 3. motako jarduerak egiteko, biak ala biak ere Inguru Deprimitu baitira.

Ildo horretatik kontuan izan behar da EIBARKO udalerrriak ez duela hitzarmen honetan parte hartzen, 2.2.b artikulua oinarritzat hartuta; izan ere, bertan ondokoa jasotzen da: "Salbuespen gisa, ondorengo kasuetan, tokiko proiektuak diruz lagundu ahal izango dira, eskualde izaera alde batera utzita:

b) Proiektuak, 2016eko urtarrilaren 1ean, 24.000 biztanletik gorako populazioa duten udalerriei dagozkienean."

Hala, Debabarrena Eskualderako aurrekontutik, Eibarri 1. Motako ekintzak egiteko dagokion zatia kendu ostean (horretarako biztanleriaren garrantziari dagokion ehunekoa ezarri da, ebazpenaren 7.2.a) artikuluan adierazten denaren arabera), aurrekontua honela geldituko da:

Resultando que, en dicha resolución, se fijaron las cuantías máximas de ayuda para cada uno de los ámbitos territoriales delimitados por cada Plan de Empleo Comarcal y se establecía que los municipios pertenecientes al ámbito territorial de Debabarrena eran Deba, Mutriku, Mendaro, Elgoibar, Eibar y Soralue-Placencia de las Armas. (ANEXO I)

Resultando que en el ANEXO II de la resolución se establece un presupuesto máximo subvencionable para cada comarca, y que en el caso de la Comarca de Debabarrena asciende a: 361.113,10 € para el conjunto de la comarca, para las actuaciones tipo 1 y 2, y de 99.594,53 € para Eibar como Zona Deprimida para las actuaciones tipo 3 y 16.308,20 € para Soralue-Placencia de las Armas, como Zona Deprimida para las actuaciones tipo 3.

Resultando que el municipio de EIBAR no participa en este convenio, acogiéndose al artículo 2.2.b, en el que se recoge que "Excepcionalmente, se podrán subvencionar proyectos locales prescindiendo del carácter comarcal...en los siguientes supuestos:

b) Cuando los proyectos se refieran a municipios con una población superior a 24.000 habitantes, a 1 de enero de 2016"

Resultando que, descontado del presupuesto para la Comarca de Debabarrena la parte correspondiente a Eibar para el Tipo 1, (aplicando el porcentaje correspondiente al peso poblacional, tal como se señala en el artículo 7.2.a) de la resolución) el



presupuesto queda de la siguiente manera:

Enplegu plana		2018
1. TIPOA	Debabarrena (Eibar gabe)	152.346,47 €
	Deba	24.041,99 €
	Elgoibar	61.131,89 €
	Mutriku	24.646,06 €
	Soraluze	32.257,34 €
	Mendaro	10.269,19 €

Hala, 5. artikuluan ezartzen denez, eskaera nortasun juridikorik gabeko udalerrri talderen batek aurkeztu behar izanez gero, eskaera, ahalorde nahikoa izango duen ordezkari batek egingo du, onuradun gisa, taldeari dagozkion betebeharrak, udalerrri horien esparruaren baitan adostu behar direnak, betetzeko.

Era berean, kontuan izan behar da, diru-laguntzei buruzko eskaera aurkezteko helburuarekin, Debabarrena lurralde eremua osatzen duten gainerako udalen ordezkariak Elgoibarko alkatesaren esku uzteko akordioa DEBEGESAREN Administrazio Kontseiluak 2012ko azaroaren 29an egin zuen bileran hartu zela.

Horren harira, Elgoibarko Udalak arestiko diru-laguntza eskaera egin ostean, Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuaren Zuzendari Nagusiak 2018ko urriaren 3an eman zuen Ebazpenaren bitartez, Elgoibarko Udalari, gehienez ere, 152.167,88 euroko diru-laguntza eman zitzaion, tokiko enplegua sustatzeko 1. motako proiektuak egiteko.

Resultando que en el artículo 5 se establecía que la solicitud deberá ser presentada, en el caso de una agrupación de municipios sin personalidad jurídica, por un representante con poderes bastantes para cumplir las obligaciones que como beneficiario, corresponden a la agrupación, y que deberán haber sido consensuados en el ámbito de las mismas.

Resultando que el acuerdo para asumir la representación del resto de los ayuntamientos encuadrados en ámbito territorial de Debabarrena, por parte de la Alcaldesa de Elgoibar, de cara a presentar la solicitud de ayudas, se tomó en el Consejo de Administración de DEBEGESA de 29 de noviembre de 2012.

Resultando que, una vez efectuada dicha solicitud de subvención por el Ayuntamiento de Elgoibar, mediante Resolución del Director General de Lanbide- Servicio Vasco de Empleo, de 3 de octubre de 2018, se aprueba la concesión al Ayuntamiento de Elgoibar de una subvención máxima de 152.167,88 € para la realización de los proyectos locales de empleo para las tipologías 1.



OSOKO BILKURA
2018/11/29
10 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

Horretaz gain, Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuak bidalitako jarraibideen arabera, Plan Berezien Kudeaketaren harira, ondorengo ezartzen da: Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak emandako diru-laguntzaren titularrak, hau da, Elgoibarko Udalak bakarrik izango duela fakturak jaulki eta bidaltzeko, beste erakunde batzuekin hitzarmenak egiteko, eta dokumentazioa emateko ahalmena. Horrexegatik, komenigarritzat jotzen da kudeaketa-agindua emateko hitzarmen bat sinatzea gai honetan sartuta dauden Udal guztien artean, bailara arloko gaietarako.

Resultando que según las directrices enviadas desde Lanbide - Servicio Vasco de Empleo, resulta que, para la Gestión de los Planes Singulares se establece que únicamente podrá emitir y trasladar facturas, realizar convenios con otras entidades y prestar documentación, el titular de la subvención otorgada por de Lanbide - Servicio Vasco de Empleo, en este caso el Ayuntamiento de Elgoibar, se considera necesario firmar un convenio de encomienda de gestión con todos los Ayuntamientos implicados, en lo que atañe a la parte comarcal.

Hala, alde batetik, Lanbide -Euskal Enplegu Zerbitzuak 2018ko urriaren 3an eman zuen Ebazpenaren bidez enplegua eta tokiko garapena sustatzeko onartu ziren proiektuen kudeaketa, hau da, gehienez ere **152.167,88** euroko diru-laguntza jaso duten bailarako proiektuei dagokiena, agintzeko hitzarmena aztertu da. Dirulaguntza horrela banatzen da:

Examinado, por un lado, el Convenio de encomienda para la gestión de los proyectos de impulso del empleo y desarrollo local aprobados en la Resolución de Lanbide- Servicio Vasco de Empleo 3 de octubre de 2018, en la parte que corresponde a los proyectos comarcales, y a los que se les asigna una cantidad máxima subvencionable de **152.167,88 €**, distribuidos de la siguiente manera:

PROIEKTUAREN IZENA Nombre del proyecto	UDALA AYUNTAMIENTO	KONTRATU KOPURUA Nº contratos	%LANAL- DIA % jornada	IRAUPE NA (hilebete ak) Duración (meses)	DIRU- LAGUNTZ AREN ZENBATE KOA (€) Importe sub- vención
1 EMBELLECIMIENTO URBANO	Elgoibar	4	100	4	40.293,28€
2 MEJORA Y OPTIMIZACIÓN DE LOS EQUIPAMIENTOS MUNICIPALES	Elgoibar	1	90	4	12.278,03€
3 DIGITALIZACIÓN DE EXPEDIENTES	Elgoibar	1	80	4	8.560,58€
4 REGENERACIÓN EN LAS ZONAS DE ESPARCIMIENTO ALEDAÑOS A LA RÍA (CASA CAMPO, PADURA ARTZABAL) Y ENTORNO PLAYA Y RECUPERACIÓN DE 2 SENDEROS	Deba	4	100	5	24.042€
5 TURISMOARI BEGIRA HERRIA DOTORETZEKO PLANA	Mutriku	1	100	5	13.034,50 €
6 LIBURUTEGIA BIZIBERRITZEA ETA IRAKURLEZALETASUNARI BULTZADA	Mutriku	1	75	5	11.573,71 €



OSOKO BILKURA
2018/11/29
10 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

7	INGURUGIRO ETA JASANGARRITASUN ARLOARI BULTZADA EMATEA	Soraluze	1	56	6	12.105,52€
8	ESPazio PUBLIKOEN ERABERRITZEA	Soraluze	2	65	6	20.011,06€
9	PROTECCIÓN DE ZONAS NATURALES	Mendaro	2	60	6	10.269,20€
DIRU-LAGUNTZA GUZTIRA / SUBVENCION MÁXIMA			17			152.167,88€

Beste alde batetik, esan behar da Elgoibarko Udala ados dagoela hitzarmen horretan ezarritako baldintzekin.

Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legearen 86. artikuluan eta Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko 40/2015 Legearen 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, 2018ko azaroaren 26an egindako Udal Kudeaketarako Batzordeak Udalbatzarraren Osoko Bilkurari proposatzen dio ondorengo **AKORDIOAK** har ditzala:

Lehenengoa.- Enplegua eta tokiko garapena sustatzeko proiektuak, hots, Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuak diruz laguntzen dituenak gauzatzeko Elgoibarko, Soraluzeko, Mendaroko, Debako eta Mutrikuko udalen artean burutzen den gestioa Debabarreneko lurralde eremuaren esku uzteko hitzarmena, gehienez ere, diruz lagungarria izango den **152.167,88** euroko zenbatekoa izango duena, onartzea

Bigarrena.- Alkate--Lehendakari andreaki eskumena ematea, Elgoibarko Udalaren izenean, adierazitako hitzarmena sina dezan.

Hirugarrena.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean hitzarmenaren testu osoa argitaratzea.

Mostrándose el Ayuntamiento de Elgoibar conforme con las condiciones establecidas en el citado convenio.

De conformidad con lo establecido en el artículo 86 de la Ley 39/2015 del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y en el artículo 11 de la Ley 40/2015 de Régimen Jurídico del Sector Público, la Comisión de Gestión Municipal, celebrada el día 26 de noviembre de 2018 propone, que por parte del Pleno de la Corporación se adopten los siguientes **ACUERDOS**:

Primero.- Aprobar el Convenio de encomienda de gestión entre los Ayuntamientos de Elgoibar, Soraluze, Mendaro, Deba y Mutriku para la ejecución de los proyectos de impulso del empleo y desarrollo local subvencionados por Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, al ámbito territorial de Debabarrena, con una cantidad máxima subvencionable de **152.167,88€**.

Segundo.- Facultar a la Sra. Alcaldesa – Presidenta, para que en nombre del Ayuntamiento de Elgoibar, proceda a la firma del citado Convenio.

Tercero.- Publicar el texto íntegro del convenio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.



OSOKO BILKURA
2018/11/29
10 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

HIRUGARRENA.- LERUNTXIKI KALEAREN IZENDAPENA ONARTZEA.-

Aho batez onartu eta erabaki bihurtu da Euskara eta Kultura Batzordeak eman duen honako irizpen hau:

Elgoibarko Udalaren Euskara eta Kultura Batzordeak, 2018ko azaroaren 20an egindako bileran, egokitzat jo zuen Elgoibarko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean ageri den UA10A Leruntxiki-Mortarika hirigintza-sektorean sortu berri den kalea Leruntxiki izendatzeko onarpena ematea.

Horiek horrela, Batzordeak ondoko IRIZPENA aurkezten dio Udalbatzarraren Osoko Bilkurari, onar dezan.

AURREKARIAK

Elgoibarko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean ageri den UA10A Leruntxiki-Mortarika industriagune berriaren urbanizazioa exekutatu ostean, herri bide berri bat sortu da, eta Udalak izendapen bat eman behar dio bide berri horri.

Kontutan izanik, Udalbatzarraren Osoko Bilkurak, herrian egindako ikerketa toponimikoa oinarri hartuta, eta Euskaltzaindiaren oniritziarekin, Elgoibarko udalerriko toponimoen zerrenda, kaleen, industrialdeen eta baserri-auzoen leku izenak eta horien idatzizko erabilera zuzena onartu zituela 2011ko abenduaren 15ean egin zuen batzarrean.

Horiek horrela, Euskara Sailak, Euskaltzaindiari eskatu dio Leruntxiki leku-izenaren egokitasunari buruzko txostena.

Halaber, Euskaltzaindiak leku-izenaren

TERCERO.- APROBACIÓN DE LA DENOMINACIÓN DE LA CALLE LERUNTXIKI.-

Es aprobado por unanimidad elevándolo a la categoría de acuerdo el siguiente dictamen de la Comisión de Euskera y Cultura:

La Comisión de Euskera y Cultura del Ayuntamiento de Elgoibar, en sesión celebrada el 20 de noviembre de 2018, consideró oportuno aprobar la denominación de Leruntxiki kalea, a la nueva vía pública creada en el sector urbanístico UA10A Leruntxiki-Mortarika del Plan General de Ordenación Urbana de Elgoibar.

Por ello, dicha Comisión eleva el presente DICTAMEN al Pleno de la Corporación, con el fin de que lo apruebe.

ANTECEDENTES

Habiéndose ejecutado la urbanización del nuevo sector industrial UA10A Leruntxiki-Mortarika del Plan General de Ordenación Urbana de Elgoibar, se ha creado una nueva vía pública a la cual el Ayuntamiento debe asignarle una denominación

Considerando que el Pleno de la Corporación, basándose en el estudio toponímico realizado en la localidad, y que cuenta con el visto bueno de Euskaltzaindia, aprobó, en la sesión del 15 de diciembre de 2011, las nomenclaturas de las calles, polígonos industriales y barrios rurales del municipio de Elgoibar, y la grafía correcta de los mismos.

Así las cosas, el departamento de Euskera ha solicitado a Euskaltzaindia el informe de idoneidad del topónimo Leruntxiki.

Asimismo, el Ayuntamiento de Elgoibar



OSOKO BILKURA
2018/11/29
10 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

alde egin duen txostena jaso du Elgoibarko Udalak.

ha recibido el informe favorable de Euskaltzaindia.

Arestian adierazitakoa kontuan izanik, 2018ko azaroaren 20an egin zen Euskara eta Kultura Batzordeak ondoko **AKORDIOAK** har ditzala proposatzen dio Udalbatzarraren Osokoari:

A la vista de lo que antecede, la Comisión de Euskera y Cultura celebrada el 20 de noviembre de 2018, propone que por parte del Pleno de la Corporación se adopten los siguientes **ACUERDOS**:

Lehenengoa.- UA10A Leruntxiki-Mortarika industriagunean sortu den herri bide berriari Leruntxiki kalea izena jartzeko onarpena ematea.

Primero.- Aprobar la propuesta de denominar con el nombre de Leruntxiki kalea a la vía pública de nueva creación en el sector industrial UA10A Leruntxiki-Mortarika

Bigarrena.- Honako akordio hau ondorengo erakundeei jakinaraztea legez ezarrita dagoen eran: INE, Katastroa (Gipuzkoako Foru Aldundia), Jabetzaren Erregistroa, Sociedad Estatal de Correos y Telégrafos, Iberdrola, Eustat, IGN (Instituto Geografiko Nazionala), Debabarreneko Mankomunitatea, Gipuzkoako Urak eta Udaleko sail guztiak.

Segundo.- Notificar el presente acuerdo en la forma legalmente establecida a los siguientes organismos: INE, Catastro (Diputación Foral de Gipuzkoa), Registro de la Propiedad, Sociedad Estatal de Correos y Telégrafos, Iberdrola, Eustat, IGN (Instituto Geográfico Nacional), Mancomunidad Debabarrena, Gipuzkoako Urak, y la totalidad de departamentos municipales.

LAUGARRENA.- ELGOIBARKO EUSKARA SUSTATZEKO EKINTZA PLANA, ESEP 2018-2022.

CUARTO.- APROBACIÓN DEL PLAN DE ACCIÓN PARA LA PROMOCIÓN DEL EUSKERA EN ELGOIBAR, ESEP 2018-2022..

ONARTZEA.- Aho batez onartu eta erabaki bihurtu da Euskara eta Kultura Batzordeak eman duen honako irizpen hau:

Es aprobado por unanimidad elevándolo a la categoría de acuerdo el siguiente dictamen de la Comisión de Euskera y Cultura:

AURREKARIAK

ANTECEDENTES

1.- Elgoibarko Udalak orain arte indarrean izan du Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP), 2014-2017 aldiari dagokion Plan Estrategikoa, arestian aipatutako aldi horretan, euskararen normalizazioaren alorrean landu beharreko helburu estrategikoak, neurriak eta ekintzak jasotzen dituen.

1.- El Ayuntamiento de Elgoibar hasta la fecha ha tenido vigente el plan estratégico 2014-2017 correspondiente al Plan de Acción para la Promoción del Euskera (ESEP), donde se contemplan los objetivos estratégicos, las medidas y las acciones que se han llevado a cabo, en el período anteriormente citado, en el ámbito de la normalización del euskera.

2.- Era berean, kontuan izan behar da Plan Estrategiko horren indarraldia

2.- Asimismo, debe considerarse que ya ha concluido la vigencia de dicho Plan



OSOKO BILKURA
2018/11/29
10 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

bukatu dela, eta Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren aginduz, ESEP 2014-2017ri jarraipena emango dion Euskara Sustatzeko Ekintza Plana, ESEP 2018-2022, onartu behar duela.

Estratégico. Por ello, siguiendo el mandato de la Viceconsejería de Política Lingüística del Gobierno Vasco, el Ayuntamiento de Elgoibar debe proceder a la aprobación del Plan de Acción para la Promoción del Euskera, ESEP 2018-2022, que dará continuidad al ESEP 2014-2017.

Horregatik guztiagatik, Elgoibarko Udalaren Euskara eta Kultura Batzordeak, 2018ko azaroaren 20an egindako bileran, ondorengo **AKORDIOA** har dezala proposatzen dio Udalbatzarraren Osoko Bilkurari:

Por todo ello, la Comisión de Euskera y Cultura del Ayuntamiento de Elgoibar, en sesión celebrada con fecha de 20 de noviembre de 2018, propone al Pleno de la Corporación Municipal que adopte el siguiente **ACUERDO**:

Lehenengoa.- 2018-2022 epealdirako Euskara Sustatzeko Ekintza Plana ESEP onartzea.

Primero.- Aprobar el Plan de Acción para la Promoción del Euskera, ESEP 2018-2022.

Bigarrena.- Honako akordio hau Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari jakinaraztea legez ezarrita dagoen eran.

Segundo.- Notificar el presente acuerdo en la forma legalmente establecida a la Viceconsejería de Política Lingüística del Gobierno Vasco.

BOSGARRENA.- AZAROAREN 25EKO ADIERAZPEN INSTIZIONALA “EMAKUEENGANAKO INDARKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA”.-

QUINTO.- DECLARACIÓN INSTITUCIONAL DE 25 DE NOVIEMBRE “DÍA INTERNACIONAL CONTRA LA VIOLENCIA HACIA LAS MUJERES”.-

EAJ Udal Taldeko Bozera maile den Zabala andreak honako Adierazpen Instituzional hau irakurri du:

Por parte de la Portavoz del Grupo Municipal del PNV, Sra. Zabala, se procede a dar lectura a la siguiente Declaración Institucional:

“EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA”
Biktimen erreparazioak emakumeei ahotsa ematea eskatzen du

“DIA INTERNACIONAL CONTRA LA VIOLENCIA HACIA LAS MUJERES”

La reparación de las víctimas pasa por darles voz a las mujeres

Azaroaren 25a dela eta, Emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko Nazioarteko Egunean, indarkeria matxistatik libre egongo den gizartea eraikitzearekin dugun konpromisoa berretsi nahi dugu. Era berean, nazioarteko marko juridikoarekin bat,

Con motivo del 25 de noviembre, Día Internacional para la eliminación de la violencia contra las mujeres, queremos reiterar nuestro compromiso con la construcción de una sociedad libre de violencia machista. En línea con el marco jurídico internacional,



berriaz azpimarratu behar dugu badagoela loturarik genero-arrazoiengatik bazterkeria eta desberdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren artean, azken hori emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen urraketa bat bezala ulerturik.

Testuinguru honetan, arreta jarri nahi dugu indarkeria matxistaren biktimek duten erreparazio-eskubidean. Erreparazio horrek egiarako eskubidea dakar; alegia, bizi izandako indarkeriaren, salaketaren eta emakumeen hitzen errelatoa egiazki entzuna izatea. Horren guztiaren xedea da hautsitako eskubideak lehengoratzeta eta pairatutako indarkeriaren inpaktuak sozialki aitortzea. Indarkeria matxista hauek bizitzen dituzten emakumeen errelatoak zalantzan jartzen direnean, haien hitza gutxietsia izaten da, zikindua, are isilarazia. Halakoetan biktimizazio bikoitza gertatzen da: emakume biktimek jasandako minari lotsa eta erruduntasuna eransten zaio; bitartean, justifikatu egiten dira erasotzaileak.

Tokiko Erakundeetatik gure egin behar dugu gizarte bat eraikitzean daukagun ardura sozial eta politikoa, gizarte horrek biktimen egiarako eskubidea bermatuko badu. **BERDINSARE**Atik, Berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako euskal udalen saretik, indarkeria matxistaren aurrean udal erantzunaren artikulazioa lantzen ari gara, nola-eta Istanbuleko Hitzarmenaren markoa egokituz eta biktimen erreparaziorako toki-praktikak garatuz.

Ezinbestekoa da ematea ahotsa emakumeei, autoritatea beraien lekukotzari eta egiazkotasuna bizi

reafirmamos el vínculo existente entre la discriminación y desigualdad por motivos de género y la violencia contra las mujeres, entendiéndola como una violación de los derechos humanos.

En este contexto, queremos hacer hincapié en el derecho a la reparación de las víctimas de la violencia machista. Una reparación que implica el derecho a la verdad, a que el relato de la violencia vivida, la denuncia y la palabra de las mujeres, sean legítimamente escuchadas. Todo ello con el fin de conseguir la restitución de los derechos conculcados y el reconocimiento social de los impactos de la violencia sufrida. Cuando se sospecha o se ponen en cuestión los relatos de las mujeres que viven estas violencias machistas, su palabra es infravalorada, desacreditada, e incluso silenciada. Se produce entonces una doble victimización, agravando el daño sufrido por las mujeres víctimas con sentimientos de vergüenza y culpabilidad, a la vez que se justifica a los agresores.

Desde las instituciones locales debemos asumir nuestra responsabilidad social y política en la construcción de una sociedad que garantice el derecho a la verdad de las víctimas. Desde **BERDINSAREA**, Red de municipios vascos por la igualdad y contra la violencia hacia las mujeres, se viene trabajando en articular la respuesta municipal ante las violencias machistas, ajustada al marco del Convenio de Estambul, y desarrollando prácticas locales para la reparación de las víctimas.

Se hace necesario dar voz a las mujeres, autoridad a su testimonio y legitimidad a su relato de la violencia



izandako indarkeriari buruz egiten duten errelatoari. Horrek esan nahi du indarkeriaz beharturiko emakumeen hitza aintzatetsi beharra dagoela, haien askatasuna berrezarri, hartara bizirik atera den pertsonatzat har daitezen eta beren komunitateetan eskubide osoko duintasun- eta herritartasun-zentzua berreskura dezaten.

Horretarako, Udalek ondokoak gauzatzeko konpromisoa hartzen dugu:

Zerbitzuak hobetzen lagundu, sostengu-zerbitzuzko sare bat gauzatzearekin batera emakumeei arreta osoa bermatzeko bere onera etor daitezen, ahalduntze feminista eta banakako erreparazioa ikuspegi nagusi harturik.

Bizirik atera diren emakumeak entzun, prebentzio eta segurtasun neurriak diseinatzeko, emakumeei bizirauten eta babesten balio dieten aurre-emate estrategiak balioan jarri.

Emakumeen ondoan egon, laguntza-zerbitzuetatik hasita eta bizi izandako indarkeriari buruzko beraien errelatoa sortzeraino, ulertzen baita indarkeria hori menderapen- eta kontrol-mekanismoa dela, gizarte-sistema patriarkalean eraikia.

Ekimen kolektiboei laguntza eman (laguntza-taldeak eta plataformak), hartara bizirik irtendako emakumeek indarkeria horri buruzko errelato kolektiboa landu dezaten eta hautsitako eskubideak zein erreparazioa aldarrika ditzaten.

Biktimen salaketa- eta erreklamazio-prozesuetan laguntza eman, emakumeek adierazitako testigantza eta beharrak egiaztatzeko.

vivida. Esto significa contar con la palabra de las mujeres violentadas para reparar el daño, restaurar su libertad para reconocerlas como supervivientes y para que puedan recuperar su sentido de dignidad y ciudadanía de pleno derecho en sus comunidades.

Para ello los Ayuntamientos nos comprometemos a:

Contribuir en la mejora de los servicios en aras de desarrollar una red de servicios de apoyo para garantizar la atención integral a las mujeres en su recuperación, desde el enfoque feminista de empoderamiento y reparación individual.

Escuchar a las mujeres supervivientes para diseñar medidas de prevención y seguridad, poniendo en valor las estrategias de afrontamiento que permiten a las mujeres sobrevivir, protegerse y empoderarse.

Acompañar a las mujeres, desde los servicios de apoyo, a elaborar su propio relato de la violencia vivida, entendiéndola como mecanismo de dominación y de control construido en un sistema social patriarcal.

Apoyar iniciativas colectivas (grupos de apoyo y plataformas) para que las supervivientes elaboren el relato colectivo de la violencia y reivindiquen los derechos vulnerados y la reparación debida.

Apoyar los procesos de denuncia y reclamación de las víctimas, legitimando el testimonio y las necesidades expresadas por las mujeres.



OSOKO BILKURA
2018/11/29
10 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

Aldiro indarkeria matxistaren biktimen aldeko aitopen publiko eta erreparazioko ekitaldiak egin, indibidualak zein kolektiboak: emakumeen erresistentzia-memoria berreskuratzeko ikerketak; omenaldi-ekitaldiak; emakumeen memoria eta errelatoak jakinarazteko jardunaldiak; gazteekiko sentsibilizazio-tailerrak, e.a.

Realizar actos periódicos de reconocimiento público y reparación de las víctimas de violencia machista, tanto individuales como colectivas: investigaciones para recuperar la memoria de resistencia de las mujeres, actos de homenaje, jornadas para dar a conocer la memoria y los relatos de las mujeres, talleres de sensibilización con jóvenes, etc.

Elkarlanean jardun mugimendu feministako ordezkariekin, adituekin eta indarkeria matxistatik bizirik irtendako emakume biktimen kolektibo eta elkarteekin.”

Trabajar en colaboración con las representantes del movimiento feminista, expertas y colectivos y asociaciones de mujeres víctimas / supervivientes de violencia machista.”

Jarraian Zabala andreak dio, azaroaren 25eko astean gaudenez, errepasso bat egin nahi duela antolatu diren ekintzen inguruan, eta baita datu batzuk emateko.

A continuación, la Sra. Zabala dice que, como nos encontramos en la semana del 25 de octubre, quiere hacer un repaso en torno a las actividades organizadas, y también desea aportar algunos datos.

2018. urtean, espainiar estatuan 43 emakume erail dituzte dagoeneko beren bikoteek edo bikote ohiek.

El año 2018, en el estado español ya han sido asesinadas 43 mujeres por sus parejas o sus ex parejas.

2017an, 4020 emakumek pairatu zuten indarkerai matxista EAEn.

En 2017, fueron 4.020 las mujeres que sufrieron violencia machista en la CAV.

2018. urtearen erdian, indarkeria matxista pairatu zuten ia 3.100 emakume zenbatu zituzten EAEn, iaz baino %10 gehiago.

A mediados de año 2018, fueron casi 3.100 las mujeres que sufrieron violencia machista, un 10 % más que el año anterior.

Hau guztia gaitzetsi eta herritarren kontzientzia eragiteko asmoz, Elgoibarko Udalak, Haizea Emakume Taldearekin, Narrutsik Talde feministak, Gotzon Garate Udal Liburutegiak, Kirol Patronatuarekin eta Ongarri zine Klubarekin elkarlanean, hainbat egitasmo antolatu dituzte.

Con el fin de rechazar todo esto y agitar la conciencia de la ciudadanía, el Ayuntamiento de Elgoibar, Haizea Emakumeen Taldea, Narrutsik Talde Feminista, la biblioteca municipal Gotzon Garate, el Patronato de Deportes y Ongarri Zine Kluba han organizado, conjuntamente, una serie de actividades.

Errepaso bat egingo dut:

Haré un repaso:



OSOKO BILKURA
2018/11/29
10 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

Azaroaren 16an, bideo foruma egon zen “7 Diosas” pelikularekin.

El 16 de noviembre, se celebró el video-forum con la película “7 diosas”.

Azaroaren 19an, txarla egon zen “Min ematen badu ez da Maitasuna” titulupena.

El 19 de noviembre, se ofreció una charla bajo el título “Si duele, no es amor”.

Azaroaren 20an “Maskulinitate berriak gaurko gizartean” txarla eman zen. Bertara zazpi lagun joan ginen, 4 gizon eta 3 emakume.

El 20 de noviembre, se ofreció la charla “Nuevas masculinidades en la sociedad actual”. Participaron 7 personas en la misma, 4 hombres y 3 mujeres.

Beraz, aprobetxatu nahi dut une hau bronka txiki bat botatzeko gizonei, batez ere kargu publikoa zareten gizonei.

Por tanto, quiero aprovechar este momento para echar una pequeña bronca a los hombres, sobre todo, a aquellos que sois cargos públicos.

Azaroak 21ean “Berdintasuna Maite Dugulako” ipuin kontalaria izan zen Gotzon Garate Udal Liburutegian.

El 21 de noviembre, se ofreció el cuentacuentos “Berdintasuna Maite Dugulako” en la Biblioteca Municipal Gotzon Garate.

Azaroak 24an Kiroldegian Autodefentsa tailerra izan zen.

El 24 de noviembre, se llevó a cabo un Taller de Autodefensa.

Azaroak 25ean Elkarretaratza izan zen. Igandean ospatu zen eta balorazio oso positiboa egiten dugu, partehartzea oso garrantzitsua izan zelako. Bertan Haizea Emakume Taldea, Uluka batukada Taldea, Narrutsik Emakume Gazte Feministen Taldea, Emakumeen Kontseilua eta Elgoibarko Udala egon ziren, eta ez dugu ahaztu behar, Udal Musika Bandak kontzertuaren bukaeran publiko guztiari gogorarazi egin ziolako plazara joateko kontzentrazioa.

El 25 de noviembre, se celebró una concentración. Se llevó a cabo el domingo, y realizamos una valoración muy positiva de ello, porque la participación fue muy importante. Participaron en la misma Haizea Emakume Taldea, Uluka batukada Taldea, Narrutsik Emakume Gazte Taldea, Emakumeen Kontseilua y el Ayuntamiento de Elgoibar. No debemos olvidar que la Banda Municipal de Música tras finalizar el concierto, hizo un llamamiento a todo el público a que acudieran a la plaza a llevar a cabo la concentración.

Uste dugu plazan, hainbat ekintza egin zirela eta balorazio oso positiboa egiten dugu.

Debemos realizar una valoración muy positiva de las diferentes actividades que se llevaron a cabo en la plaza.

Azaroak 27an “Fabricando Mujeres” filmaren estreinua izan da Elgoibarren,

El 27 de noviembre se estrenó en Elgoibar el film “Fabricando Mujeres”,



OSOKO BILKURA
2018/11/29
10 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

pasarte batzuk Makina Erramintaren Museoa grabatuak izan direnak jasotzen dituena.

que recoge unos pasajes que han sido grabados en el Museo de la Máquina Herramienta.

70 lagun izan ginen, eta uste dugu arrakasta bat izan zela.

Estuvimos unas 70 personas, y consideramos que se trata de un éxito.

Azkenik, gaur bertan, 21.30ean Ongarri Zeneklubaren eskutik, "Girl" filma emango da.

Por último, este mismo día, a las 21:30, se ofrecerá el film "Girl" de la mano de Ongarri Zinekluba.

Bozketan egin ondoren, Adierazpen Instituzionala aho batez onartu da.

Sometida a votación, la Declaración Institucional es aprobada por unanimidad.

**SEIGARRENA.- ADIERAZPEN
INSTITUZIONALA: EUSKARAREN
NAZIOARTEKO EGUNA, 2018.-**

**SEXTO.- DECLARACIÓN
INSTITUCIONAL: DÍA
INTERNACIONAL DEL EUSKERA,
2018.-**

Aho batez onartu da honako Adierazpen Instituzional hau:

Es aprobada por unanimidad, la siguiente Declaración Institucional:

"Bizi. Prest

"El euskera nos necesita en actitud activa y predispuesta

Egunero delako euskararen aldia

Porque todos los días son euskaraldia

Bizi. Prest.

Vivaz. Presto.

Halaxe datorkigu euskara bere aurtengo Nazioarteko Egunean. Eta halaxe doa etorkizunerantz. Mingainetan, pantailetan, uhinetan bizi-bizi. Zernahitarako prest.

Así es como se nos presenta el euskera en su Día Internacional de este año. Y así es como se proyecta hacia el futuro. Vivaz en nuestros labios, en las pantallas, en las ondas. Presto para ocupar su espacio.

Etxean bizi-bizi, kalean bezala; bizi-bizi eskolako jolastokian, ikasgelan bezala; lantokian bizi-bizi, lagunarteko solasaldietan bezala; bizi-bizi osagilearenean, saltokian bezala; zuzeneko harremanetan bizi-bizi, birtualetan bezala; bizi-bizi kirolean, liburuetan edo zineman bezala.

Vivaz y vigoroso, tanto en casa como en la calle, tanto en el patio de la escuela como en las aulas, tanto en el centro de trabajo como en la charla amistosa, tanto en la consulta del ambulatorio como en la tienda, tanto en las relaciones cara a cara como en las virtuales, tanto en el deporte como en los libros o en el cine.

Prest gaudelako gu, euskal herritar gehien-gehienok, hori horrela izan

Porque la inmensa mayoría de los ciudadanos y ciudadanas vascos



OSOKO BILKURA
2018/11/29
10 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

dadin. Prest gaudelako euskarari gure hitzen hegoak eskaintzeko, ahotik belarrira, bihotzetik bihotzera, burutik burura hegaldadadin, samur bezain indartsu. Dakiguna dakigula, mintzatzen ez dena baita euskara eskas bakararra.

estamos dispuestos a que así sea. Porque estamos dispuestas y dispuestos a dar al euskera las alas de nuestra voz, para que vuele, afable y pujante, de boca en boca, de corazón a corazón, de mente a mente. Sea cual sea nuestro dominio del euskera, porque el único mal euskera es aquel que no se habla.

Prest gaude, eta gogotsu, euskarak gure ahoan bizi-bizi dantza egin dezan. Gogotsu gaude, eta prest, gure belarrietan atseginez onartzeko euskararen soinua. Dakiguna dakigula, entzuten ez dena baita euskara kaskar bakararra.

Estamos dispuestos y dispuestas a que el euskera asome con vivacidad a nuestros labios, y así nos proponemos que sea. Queremos que el sonido del euskera acaricie nuestros oídos. Sea cual sea nuestro dominio del euskera, porque el único euskera torpe es aquel que no se oye.

Prest gaudelako, eta ezin gogotsuago, euskaraz ere gero eta gehiago bizitzeko. Ingurune guztietan. Eginkizun orotan. Natural-natural. Bizi-bizi.

Porque estamos dispuestos y dispuestas, y lo deseamos profundamente, a vivir cada vez más en euskera. En todos los entornos. En todos los quehaceres. Con la mayor naturalidad. Con plena vitalidad.

Euskal hiztunok horretarako egin behar dugun urratsa ez da txikia, ez erraza. Borondate aktiboa eskatzen digu. Erosokeriari izkin egitea eskatzen digu. Sakon errotutako ohiturak aldatzea eskatzen digu. Kontzientzia ahalegin sendoa eskatzen digu. Euskaraz ere herritar izateko aukera egitea eskatzen digu.

El paso que para ello hemos de dar las personas vascohablantes no es pequeño, ni tampoco fácil. Nos exige la voluntad de activarnos. Nos exige zafarnos de la pereza. Nos exige cambiar hábitos hondamente arraigados. Nos exige un enérgico ejercicio de conciencia. Nos exige que optemos por ejercer nuestra ciudadanía también en euskera.

Eta eskatzen digu, batez ere, euskaldun izatetik euskaldun bizitzera doan tarte gaitzeko jokaera aktiboa. Eta etengabea.

Y nos exige, sobre todo, una actitud activa que ha de movernos a pasar de un mero "ser" vascohablantes a vivir como tales. Y a ser tenaces en el empeño.

Euskararen erabileran egin beharreko urrats erabakigarri hau zinez da gizarteraldaketa zabal sakona, neurri historikoa duena, gure gizartearen bilakabidean mugarri izango dena. Eta, neurri horretako aldaketa guztien

Ese decisivo paso respecto al uso del euskera supone una amplia y profunda transformación social de dimensiones históricas, un verdadero hito en la evolución de nuestra sociedad. Y, a semejanza de cualquier otra



antzera, adostasuna du elikagai nagusi, prestasun eta prestutasunarekin batera.

Euskararen gizartea. Gizartearen euskara

Adostasuna eta batasuna dira, beraz, bidea, euskarak batura behar duelako, ez kenketa; biderketa behar du, ez zatiketa.

Herri aginteak, gizarteak bere dinamika propioetik sorturiko erakundeak, herritar guztiok eta gutariko bakoitza: den-denok gara, aldi berean, euskararen erabilera eraginkortasunez areagotzeak ezinbestekoa duen adostasun zibil zabalaren osagai eta eragile, aldi berean garen bezala haren onuradun eta bultzatzaile, bideratzaile eta babesle.

Baina aktibotasuna, praktikotasuna, da adostasun horren osagarri nahitaezkoa. Aski ez delako, honezkeroko, aldarrikapen hutsen linboan galtzen diren asmo arranditsuak plazaratzea. Atzean utzi behar dugulako beste inork euskararen alde egin lezakeenaren zain egotea. Lorgarria delako, erabat, euskararen erabilera hazkunde iraunkorraren bidean jartzea, baldin eta herritar bakoitzak euskara ezpainetara eramateko bere erabaki pertsonala gauzatzen badu, hori eta ez besterik delako, azken finean, gizartearen helburu kolektiboa: aukera pertsonal ugariaren batura.

Eta egin egingo dugu.

transformación de tal alcance, se sustenta fundamentalmente sobre el consenso, así como sobre una disposición diligente.

La sociedad del euskera. El euskera de la sociedad

El camino, en consecuencia, es el del consenso y la unidad, porque el euskera necesita sumar, no restar; precisa multiplicación, no división.

Los poderes públicos, las organizaciones surgidas en el seno de la sociedad a través de sus propias dinámicas, todos y cada uno de los ciudadanos y ciudadanas: absolutamente todas y todos somos, a un tiempo, sujetos y agentes del amplio consenso que, ineludiblemente, requiere un eficaz crecimiento del uso del euskera, del mismo modo que somos simultáneamente beneficiarios e impulsores, auspiciadores y tutores de tal consenso.

Pero el rasgo sustancial de ese consenso es su carácter activo, unido a su pragmatismo. Porque ya no basta con grandilocuentes declaraciones de intenciones destinadas a desvanecerse en un limbo de vacuas proclamas. Porque debemos dejar de permanecer a la espera de lo que otros puedan hacer en pro del euskera. Porque el crecimiento sostenible del uso del euskera es perfectamente factible, siempre y cuando todos y cada uno de los ciudadanos y ciudadanas sustanciemos en la práctica la decisión personal de llevar el euskera a nuestros labios, puesto que en ello, y no en otra cosa, consiste, en definitiva, el objetivo colectivo de la sociedad: la suma de muchas opciones personales.

Y lo haremos.



OSOKO BILKURA
2018/11/29
10 zenbakidun akta

IDAZKARITZA
SECRETARIA

Munduari euskaraz ere helduz, euskararentzat belarria zein gogo prest izanez, euskara ahoz zein idatziz bizi-bizi eskainiz. Euskarak eguneroko bizitza aberastu dezan; eguneroko bizitzak euskara bete dezan.

Asomándonos al mundo también en euskera, manteniendo nuestros oídos y espíritu prestos para el euskera, haciendo volar en euskera nuestras palabras y textos. Para que el euskera enriquezca nuestra vida cotidiana; para que nuestra vida cotidiana colme al euskera.

Elkarrekin.

Codo con codo.

Elkarrenganako errespetu osoz, elkarrengandik adorea jasoz.

Con mutuo respeto y determinación compartida.

Elkarri euskara eskainiz.

Ofreciéndonos el euskera recíprocamente y a manos llenas.

Euskara bizi-indarrez sendoagotuz.

Para que el euskera se impregne de vitalidad.

Bizi. Prest.

En actitud activa y predispuesta.

Egunero delako euskararen aldia.

Porque todos los días son euskaraldia.

ZAZPIGARRENA.- ESKARI-GALDERAK.-

SÉPTIMO.- RUEGOS Y PREGUNTAS.-

Ez da ez eskaerarik, ez galderarik egon.

No se presentan.

Eta iluntzeko zazpiak direnean, Lehendakari andreak bilkura bukatutzat eman du, eta nik, Idazkari naizenez, hau guztiau egiaztatu dut.

Y siendo las diecinueve horas, la Sra. Alcaldesa-Presidenta levanta la sesión, extendiéndose la presente acta que yo en calidad de Secretario certifico.

Eta horrela jasota gera dadin, ziu>tagiri hau egiten dut Alkate andrearen oniritziarekin, Elgoibarren bi mila eta hemezortziko azaroaren hogeita hamarrean.-----

Y para que así conste, expido la presente certificación con el Vº.Bº. de la Sra. Alcaldesa, en Elgoibar a treinta de noviembre de dos mil dieciocho.-----

O.E.-Vº.Bº.
ALKATEA, - LA ALCALDESA